

EUSKAL GAIAK DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN

Rosa Miren Pagola

Deustuko Unibertsitatean lantzen diren euskal gaiak bi ardatz desberdinen arabera sailka daitezke. Batetik, irakaskuntza arautuan, Fakultate, Institutu eta Eskolek beren programetan Euskal Herriaz eta haren kulturaz dituzten gaiak. Bestetik, ikerketa mailan egiten diren lanak. Horiez gain, badira beste ekintza batzu ere Unibertsitatean garatzen direnak, eta hauek ere aipatuko dira hemen.

1. FAKULTATEAK

1.1. Filosofia eta Letretako Fakultatea

A. LIZENTZIATURAK

Lizentziaturei dagokionez, bi ardatz nagusitan banatzen da Fakultate hau: Historia Sailarena, batetik, eta Filologia, bestetik, azken honek hiru adar dituelarik: Filología Hispánica, Euskal Filologia eta Filología Inglesa.

Euskal Filologia, berez euskararen eta Euskal Herriko gaien inguruan garatzen denez, ez dago hemen aipatzen ibili beharrik. Hispánicas-etan, "Euskararen kanpo historia eta tipologia", "Historia externa de la lengua vasca y tipología", ematen da bigarren ikasturtean, plan berriaren arabera; "Linguística Regional" deritzana, hirugarren ikasturtean, Bosgarren ikasturtean, "Sociolingüística" gaiak Euskal Herriko hizkuntz egoera aztertzeo aukera eskeintzen du eta hainbat ikertzailek hartu du, dagoeneko, bide hau bere ikerketa lanerako. Filologietako hiru adarretan, bestalde, "Euskal Historia", "Euskal Geografia" eta "Euskararen kanpo historia" gaiak aukerakoak dituzte hartu nahi izanez gero.

Historia lizentziaturan, espezializazio arlo zehatz bat dute, besteak beste, plangintza berrian, "Euskal Herriko Historia" deritzana. Plangintza zaharrean, aldiz, bi gai ematen ziren: "Euskal Herriko Historia: Aintzin Aroa eta Erdi Aroa" eta "Euskal Herriko Historia: Aro Modernoa eta Aro Garaikidea", 4. eta 5. ikasturteetan. Aukerakoen artean, "Estructura económica del País Vasco" gaia dago. "Arkeologia" gaian, Euskal Herriari arreta berezia jartzen zaio.

"Arkeologia" sailean honako ikerketa hauek egiten dira:

- "Conocimiento de la sociedad cazadora en el País Vasco, Cueva de Arenaza".
- "Análisis iconográfico y autoría del arte paleográfico".
- "Análisis de la tecnología de asentamientos al aire libre: Kurtzio".

Hirugarren zikloari dagokionez, ikastaro hauek eskeintzen dira surten:

Historia: "Instituciones vascas en el Antiguo Régimen", Angel M^a Ormaechea, "La arquitectura de la Ilustración en el País Vasco", José Angel Barrio, "Identidad cultural y nacionalismos", M^a Angeles Larrea.

Literatura: "Pío Baroja y la novela histórica: "Memorias de...", Jesús M^a Lasagabaster. "Euskal kontapoesiaren estilistika" eta "Prozedura ludiko-koralak", Juan M^a Lekuona. "Juan M^a Lekuona: olerki eta herri poesiaren artean", Gorka Aulestia, "Euskal eleberria-hartzailegoa harremana mende mugan", Ana M^a Toledo.

Hizkuntza eta Hizkuntzalaritza: "Euskal Morphologia historikoaren metodologia", Alfonso Irigoyen. "Fonetika maila dialektologian: ikuspegi diakronikoa", Rosa Miren Pagola. "Herri-euskararen azterketa Etno-linguistikoa", J. Manuel Etxebarria. "Tipología lingüística del euskera", Jon Ortiz de Urbina. "Análisis acústico: oclusivas en el español del País Vasco", Itziar Turrez.

B. BESTE IKASKETA BATZU

1. Escuela práctica de Arqueología del País Vasco

Apellániz Irakasleak zuzentzen duen Eskola honek bost ikasturte ditu. Bertan, gai teorikoak ematen badira ere, ez dago ukatzerik Euskal Herriari begira antolatzen direla ikasketak guztiak, bai ikasleei ematen zaien formazioaren aldetik, bai egiten dituzten praktiken aldetik. Ezagunak dira, bestalde, Eskola honetako ikasleek egin dituzten hainbat kanpo lan Euskal Herriko Historia Aurreko aztamategietan.

2. Diploma de especialización en Gestión de Patrimonio Histórico, Archivos, Bibliotecas, Museos

Arlo honetan egiten diren ikasketak orokorrak badira ere, ezin daiteke uka Euskal Herrira aplikatzen direla gai nagusiak: Patrimonio, Museologia eta Museografia, Etnografia eta Etnomuseologia, Bibliotekonomia, Bibliografia, Artxibistika, Dokumentazio Guneak eta abar. Praktikak ere Administrazioan egiten dituztenez batipat, orientabidea erabat Euskal Herrirakoa dela esan behar da.

3. Testuen edizioa eta argitalpena Espezialitate Diploma

Filologian lizentziatuentzat zuzendua dagoen Espezialitate Diploma honek bi bereizketa ditu: Gaztelera hizkuntza idatzirik dauden testuena eta euskaraz idatzirikoena. Edozein modutan, Diploma honen helburu nagusia edozein testu mota argitaratzeko euskarazko nahiz gaztelarako hizkuntz espezialistak prestatzea da, honela hizkuntza idatzia erabilgarri duten lantegi, elkarte, erakunde eta abarretan egiteko horren ezagutza teknika eskeini ahal izan dezaten. Horrela, Informatika, Liburuen Historia eta Biblioteknia, Testuen edizioa, edizio kritikoen teknikak, paleografia eta beste gaiez gain, Idazketa ere bi ikasturtetan ematen da, gaztelarakoa eta euskarazkoa bereziz.

4. Itzulpen masterra

Master hau bi hizkuntzetan gutxienez (gaztelanian, euskararen edo ingelesean) gaitasun linguistiko gorena izanik, itzulpengintzan trebatu nahi duten lizentziatuentzat eratu da eta "Deustuko Unibertsitateko Gaztelania-Euskara itzulpen Masterra" deritzan titulua jaso daiteke.

5. Fonetika Laborategia

Haundia da laborategi honek duen aktibitatea euskara eta euskal gaien inguruan. Irakaskuntza mailan, euskal filologia sailean, lizentziatura egiten ari diren ikasleek praktikak; Erasmus Programetan, euskaraz ikasten ari diren kanpoko ikasleak iharduten dira. Horiez gain, hizkuntzaren erabilera arazoak dituzten hiztunen hizkera ere aztertzen da.

Ikerketa lanak

Azken bi urte hauetan, euskararen inguruan egin diren ikerketa lanak honako hauek izan dira:

1) "Análisis acústico de la lengua vasca": M. Etxebarria, A. Iribar, I. Turrez eta H. Urrutia. Hezkuntza eta Zientzi Saileko Ministeritzak finantziatua (3 bekaldi eman direlarik). Hiru liburu argitaratu ditu, artikulua bat xistukariei buruzkoa eta, orain, bokalismoaren inguruan liburu bat idazten ari dira.

2) "Urduliz eta Gatikako herri hizkeren azterketa linguistiko". I. Gaminderen tesi lana. Halaber, ikerlari berak, Laborategi honetan prestatutako artikulua argitaratu du: "Bermeoko azentu-ereduaz".

3) "Basauriko euskera", Jon Arretxeren tesi lana.

4) "Kortezubiko euskera", Karmele Ikazuriagaren tesi lana.

5) "Análisis acústico del castellano de Bizkaia: las vibrantes en la zona de Busturialde (comarcas de Gemika-Bermeo y Markina-Ondarroa)", Alexander Iribarren tesi lana. Lan honetan, seinalatzen den hizkuntz mailan, gaztelarrek duen euskararen eragina aztertzea da helburu nagusienetako bat.

6) Azkenik, "elebiduna/elebakarra" aldakiak kontutan hartuak izaten dira A. Elejabehiari, A. Iribarrek eta R.M. Pagolak, lantaldean, perzeptioari buruz egin dituzten lanetan.

1.2. Zuzenbide Fakultatea

Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko ikasketa planaren barruan, euskal kulturako gaiak "Euskal Foru eta Autonomi Zuzenbidea" irakasgai eta euskara juridikoa garatzeko eraturako mintegietan mamitzen dira gehienbat.

"Euskal Foru eta Autonomi Zuzenbidea" irakasgaiak, bere izenak adierazten duenez, euskal legeriaren bi ikuspegi biltzen ditu:

1) Lehenak, "Foru Zuzenbidea"ri dagokiolarik, euskal foru tradizioko zuzenbide pribatuaz dihardu, historian zehar izan duen bilakabidea eta egungo egoera arakaturik, eta beraren instituzio nagusiak zehatz-zehatz aztertuz: oinetxetargoa, familia eta oinordetza alegia. Irakasgai hau gaur egun euskaraz eta gaztelaniaz ematen da.

2) Bigarrena, "Autonomi Zuzenbidea"ri dagokiolarik, Euskal Autonomi Elkarteari doakion zuzenbide publikoari lotzen zaio, foru erregimen historikoaren galera eta 1978ko Konstituzioaren babespean sortutako egoera berria sakonki azalduz eta Euskal Autonomi Elkartearen eta berau osatzen duten Lurralde Historikoen arteko harremanak aztertuz.

Irakasgai hau Zuzenbideko laugarren mailan ematen bazen ere, Zuzenbide Fakultatean 1993-1994 ikasturtetik aurrera mailaz maila indarrean jarri beharreko ikasketa plan berriarekin, bereizi egin dira "Foru Zuzenbidea" batetik, hiru garren mailara pasatu dena, eta "Autonomi Zuzenbidea" bestetik, laugarrenean geratu dena. Dena den, edukinek bere hartan dira eta euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira.

Halaber aipatu behar dugu, euskara juridikoaren garapen horren barruan, euskaraz ematen diren irakasgaiez gain, bere programa eta testua dituen irakasgai berri bat sortu dela, "Técnicas de expresión y redacción jurídica" hain zuzen ere, 1994-5 ikasturtean euskaraz ematen hasiko dena.

Ildo beretik, bada Fakultatean urte batzuetatik hona euskara juridikoa aztertzen eta lantzen diharduen mintegi bat. Hemen nabarmentzekoa da Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak euskara zuzenbidea adierazteko tresna gisa ezarri joan dadin egin duen aukera garbia. Nahiago izan da euskararen erabilpenarekin batera irakaskuntzaren kalitatea bermatuko duen bide motela, baina seguruagoa, irakasgai guztiak azkar euskaraz ematen hasi baino, eskolen kalitatearen kaltegarri gerta bailiteke azken bide hau.

Azkenik aipatu behar da foru eta autonomi zuzenbidearen arloa zabal eta sakon landu izan dela gure Fakultatean, zenbait doktore-tesiren bidez eta Bizkaiko foru legeria historikoa eta foru alor zibilean den jurisprudentzia biltzen dituzten argitarapenen bitartez.

Hirugarren Zikloan, ikastaro hauek eskeintzen dira surten: "Conflictos de leyes civiles en el País Vasco", Adrián Celaya, "Reflexión sobre el Derecho Civil Foral y Autonómico", "Regímenes matrimoniales de bienes en el Derecho Foral", José Miguel Fernández Bilbao.

1.3. Soziologia Fakultatea

Lehen ikasturtean: "Historia política y social contemporánea" gaian, Euskal Herriari dagokiona aztertzen da. Hirugarren ikasturtean: "Antropología social" gaian "Euskal kultura" azaltzen da. Laugarrenean: "Estructura social de España y del País Vasco", "Sociología urbana", "Sociología del sindicalismo y de las relaciones laborales" gaietan Euskal Herriari dagokiona bereziki aztertuz. Bostgarren ikasturtean: "Política demográfica y ordenación del territorio", "Sociología

electoral”, “Ideologías políticas en la España Contemporánea”, “Comportamiento político. Partidos políticos y grupos de presión” izango lirateke bereziki Euskal Herriarekin lotzen diren gaiak.

Hirugarren zikloan Itziar Basterretxeak ikastaro hau eskeintzen du: “Hizkuntz erabileraren inguruan”.

1.4. Filosofia eta Hizkuntzen Zientzen Fakultatea

1.4.1.

Fakultate hau bi ardatz nagusitan banatzen da: “psicología” batetik eta “Pedagogía” bestetik. Lehenengoan ez dago gai berezirik euskal kulturaren inguruan eratzten denik; praktiketan eta ikerketa lanetan garatzen dira gai horren ingurukoak. “Pedagogía” sailean, 4. ikasturtean, “Didáctica especial” delakoan, hizkuntzaren irakaskuntzak eta elebitasunak sortzen dituen arazoak hitz egiten da; horrez gain, Eusko Jaurlaritzako diseinu kurrikularren azterketa zehatza ere egiten da. Azalpen berdina eman daiteke “Pedagogía Social” gaiaz eta Bostgarren ikasturtean ematen diren “Organización, dirección y evaluación de centros docentes”, “Política y legislación educativa” eta “Educación especial” irakasgaiez, denek alderdi teoriko orokorrarekin batera Euskal Herriari dagokiona ere aztertzen bait dute.

1.4.2. Beste ikasketak

1.4.2.1. Hezkuntza Sozialaren Diplomatura. Ikasketa hauetan ez bada ere gai zehatzik euskal kulturaren arloan azaltzen denik, gehienetan Euskal Herriari dagozkion arlo desberdinei arreta berezia eskeintzen zaie.

1.4.2.2. Heziketa bereziko Masterra

Heziketa Bereziko Masterra Filosofia eta Hezkuntza zientzien Fakultateak 1987ko irailean sortutako graduondoko programa dugu. Bere hastapenetatik, Euskal Autonomi Elkarteke izaera eta egoera profesionalari atxekirik garatzeko gogoia izan du. Horren lekuko dugu praktikak egiten diren ikastegi publiko eta pribatuaren sare ugaria, haietan beti bilatu izan baita gure Elkartearen errealitatearen erakusgarri izan daitezten. Halaber, programado ikastaro eta mintegietako irakasleak Elkartearen hezkuntza bereziaren alorrean ospea duten elkarte eta ikastegi publiko zein pribatuak adituak izan ohi dira.

1990. urtean, ordura arte Pedagogia eta Psikologiako lizentziatuentzat zen programa hura, O.H.O.eko irakasleentzat ere ireki zen, Heziketa Bereziko Aditua (Pedagogia Terapeutikoa) izeneko programaz ari gara hain zuzen ere, Beronen egitaraua guztiz bat dator Departamentuak hainbat argitarapenen bitartez hezkuntza bereziari buruz plazaratu dituen hezkuntz planteamenduekin.

Programaren titulazioak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Hezkuntza Sailaren onospena du eta Hezkuntza eta Zientzia Ministraritzak ere onartu du. Ildo hone-tatik, 1990-1992 ikasturteetan eta aurtengoan (1993-1994), Hezkuntza Sailak zenbait hitzarmen sinatu ditu irakasleak, sare publikokoak batik bat, bertan matrikula zitezen. Hori guz-tiori, Eusko Jaurlaritzak eratutako Irakaslegoaren Etengabeko Prestakuntzarako Planaren barruan.

Ikerkuntzari dagokionez, Programaren zuzendaria den Delfín Monterok, ikerlan bat burutu berri du, ICAP-Zerbitzuen Plangintzarako eta Banakako Programaziorako Inbentarioa itzuli, tipifikatu eta balioztatzeko (Bruininks eta beste batzuk, 1986). Minnesotako Unibertsitateko “Institute of Community Integration”eko eta Deustuko Unibertsitateko ICE-HEZIKO

ikertzaileekin elkarlanean burututako proiektua dugu, Atzeratuan Laguntzarako Eusko Federazioaren (FEVASen) babespean eta finantzaketa publikoa jaso du.

Almudena Fernándezek, Masterreko lan taldearekin lotu-ra duenak, amaitzekotan duen doktorego-tesian, irakasleek hezkuntz premia bereziak dituzten haurren eskolaratzearen aurrean agertzen dituzten jarrerak aztertu ditu. Ikerlan hori Hezkuntza Sailaren beka baten laguntzaz egin du.

Halaber, Natxo Fernández, Aditu Programaren koordina-tzailea, beste ikerlan bat zuzentzen ari da. Ikerketa horretan, hezkuntz premia bereziak dituzten zenbait herrialdeetako lagu-nei helduen bizimodura iritsi daitezten laguntzeko zerbitzu sarean azterketa gonbaratua egingo da, Autonomi Elkartearen egoera hobetzeko proposamenak eskeini asmoz.

1.5. Informativa Fakultatea

Informativa Fakultateak Euskal Herriari eta Euskarari lotu-tako proiektuen garapenean hartzen du esku.

1.5.1. “Toponimia Proiektua”

María José Gil Larrea eta Asunción Barredo Fuentes dok-toreak DEIKER institutuarekin ari dira elkarlanean Euskal Herriko Lurralde Historikoetako toponimoen gestioa mekani-zatzeko proiektuan. Proiektua OROCLE TM ingurunean gara-tzen ari da, UNIX TM sistemapean eta interfaz grafikoa diseinatu, garatu eta ezarriko du, toponimo kartografikoen koordenadak atzeman eta egiaztatu ahal izateko.

1.5.2. “UDPascal: Pascalean Programatzeko Ingurunea”

Informatikako lehen ikasturteetan Programazioa irakatsi beharra dela eta, software komertzialaren menpe izaten dira ikasle asko. Software komertziala garestia ez ezik, sarritan desegokia ere gertatzen da eskola jardunerako, horregatik interesgarria litzateke geure ingurunea sortzea eta edukitzea, ikasleek dohainik eskura bailezakete eta irakaslearen lana ere erraztuko bailuke. Ingurune horrek honako ezaugarri bereziak izango ditu: hizkuntzari zuzendutako editorea (agian honexek dakar berrikuntza handiena egun diren sistema komertzialen aldean eta beronetan sakonduko da gehiago arlo teorikoa), sasikodearen aurreprozesadorea, konpiladore eta araztaile integratuak, eta hirueleduna izatea (gaztelania, euskara eta ingelesa eta edozein hizkuntzatarazabaltzeko aukera). Aurten hasi da sasikodearen aurreprozesadorea egiten eta editorea-ren moduluar dagokionez, bibliografiaren bilaketan dihardute, Zuzendariak: Josu K. Díaz Labrador eta Andoni Eguiluz Morán.

1.6. Ekonomikasetako Fakultatea (ESTE)

1.6.1. Irakaskuntza

Euskaraz ematen diren gaiez gain, plangintza berrian, oraingoz, bi gai berezi ematen dira Euskal Herriarekin lotzen direnak: “Economía española y vasca” eta “Historia económica del País Vasco y España”.

1.6.2. Mintegiak

Departamento guztiek beren Mintegia eduki dezaten, behar diren urratsak ematen ari dira. Xede hau dela bide, lehenengo sei hilabeterako honako hauek eratu dira:

Ž C.E.E.-i buruzko informazioa ematen duten erakundearen azterketa.

Ž Programa komunitarioen xedeak: Comet, Petra, Erasmus.

zC.E.E.-ren aurrean, hemengo banketxeen egoera.

zLurraldeetako politika komunitarioa, horren eragina eta egokiera Euskal Herrian.

zEuskal industrialgintzako egitasmo teknologiko eta partizipazioa egitasmo komunitarioetan.

zEuropar eta euskal siderurgia.

1.7. Filosofia ete Letretako Fakultatea (Donostia)

A. LIZENTZIATURAK

Bilbon bezala eratua dagoen Fakultate honetan, Euskal Filologiarako han esandakoak hemen ere balio du. Hispánicas-etan "Lingüística Regional" eta "Historia de la Lengua Vasca" gaiak eskaintzen dira. Geografia eta Historian, "Historia Antigua y Medieval del País Vasco" eta "Historia Moderna y Contemporánea del País Vasco" gaiak ematen dira.

B. BESTE IKASKETA BATZU

Bi dira Gradu-Ondoko tituluak: "Postgrado en Gestión de Recursos Culturales" eta "Master en Estudios Ambientales y Territoriales". Bietan, ikasgai orokorrek dute aplikazio eremu eta amaierako lanek ere, Euskal Herria hartzen dute, orohar, ikerketa eremua.

2. INSTITUTUAK

2.1. Euskal Ikaskuntzen Institutuak

"Departamento de Estudios Vizcaínos" izenarekin sortu zen 1974. urtean eta 1979.ean "Euskal Ikaskuntzen Instituta" izena hartu zuen, Euskal Herri osora hedatuz lan eremua, Euskal Herri osoko gaiak ikerlanen bitartez aztertu eta gai horien inguruko irakaskuntza maila garatzeko asmoz, nahiz Institutuak berak bere baitan, nahiz Unibertsitateko beste Fakultate eta Institutuei laguntza eskeiniz.

Bere helburuak betetzeko, bi ardatz nagusitan banatzen da, irakaskuntzari dagokiona bata, eta ikerkuntzari dagokiona bestea.

Azken ikasturtera, 1992-93kora alegia, mugatuz, honako ekintza hauek aipatu behar dira:

A. IRAKASKUNTZA

1. Ikasturte honetan euskal kulturari buruzko zenbait ikasketak antolatu ziren honako titulu eta eratan banaturik:

Euskal Kulturaren Postgradoko eta Aditu Tituluak. Ikasturte bakar batean lor daitezke, urte berean zortzi modulo betez; edo jarraiko bi ikasturtetan, urte bakoitzean lau modulo eginez.

Euskal Kulturaren Espezializazioko Diplomak. Bost modulu gutxienez behar ditu, eta hau ere ikasturte batean edo bitan egin daiteke.

Programa osoa zortzi moduloz -ikasturte honetan bederatziz-, osatzen da. Hauetatik, sei euskaraz nahiz gaztelaniaz egin daitezke eta gaztelaniaz bakarrik gainerakoak.

Euskaraz/Gaztelaniaz:

Ž Euskal Linguistika: Hizkuntzaren kanpo historia eta Soziolinguistika.

Ž Literatura Euskal Herrian: euskaraz eta gaztelaniaz idatzitakoa.

Ž Marko juridikoa: Autonomi eta Foru Zuzenbidea.

Ž Euskal Herriko Historia: gizartearen antolaketa eta bilakabidea.

Ž Soziologia: Gizarte egitura eta politika jokabideak.

Gaztelaniaz

Ž Arteak euskal izatearen agerkari.

Ž Euskal ekonomia: arestiko bilakaera eta etorkizuna.

(Ikasturte honetan "Kultur baliabideen kudeaketa" ere ematen da).

b. IKERKUNTZA

1. Interdisziplinarra

Análisis y contribución del dialecto vizcaíno al lenguaje jurídico actual. Zuzendaria: Francisco Javier Elzo Imaz. Lan taldea: M^a Jesús Bilbao, Izaskun Gorostiaga, M^a Teresa Laespada, Nekane Larrañaga, Anjel Lobera, Miren Urresti, M^a. Jesús Bilbao. Hiru urteko iraupena du.

2. Hezkuntz arloa

Bizkaiko eskola-ume euskaldunen euskara-maila. Ikertzailea: Laura Uruburu.

3. Historia arloa

ŽEdición crítica de Bienandanzas e Fortunas de Lope García de Salazar. Ikertzailea: Juan Manuel González Cembellín.

ŽLa representatividad socioeconómica de la Diputación General del Señorío de Bizkaia. Zuzendariak: M^a Angeles Larrea eta Rafael Mieza. Ikertzaileak: Lourdes Echevarria eta Andoni Iturbe.

ŽVascos y Flamencos unidos por la historia. Ikertzailea: Nadine Aermouts.

4. Zuzenbidea arloa

Ž Ley de Derecho Civil Foral del País Vasco. Concordancias con Antecedentes forales. Jurisprudencia y Derecho común. Zuzendaria: Julián Arzanegui. Ikertzailea: Gontzal Aizpuru. (Moldiztegia).

5. Hizkuntzalaritza

Ž Euskal Dialektologiaren ikerketa. Bonaparte Printzearen eskuizkribuen edizioa. Zuzendaria: Rosa Miren Pagola. Ikertzaileak: Elena Alkiza, Ainhoa Beola, Itziar Iribar, Juan José Iribar eta Rosa Miren Pagola.

D. BESTE EKINTZA KULTURALAK

1. Irakaskuntza

1.1. Paleografiari buruzko ikastaroa

Ikastaro monografikoa, "Escribanos y notarios públicos en el País Vasco (ss. XV-XVII)". Irakaslea Isabel Ostolaza. Filosofia eta Letretako Fakultatearekin batera antolatua.

1.2. Tanboril Ihardunaldiak

Txistu eta tanborilari buruzko Lehenengo Ihardunaldi hauek Euskal Herriko Txistulariaren Elkartearekin eta "Txistulari" aldizkariarekin batera antolatua izan ziren.

2. Hitzaldiak

2.1. Zuzenbidea

2.1.1. Juan B. Vallet de Goytisolo eskribauak, "La Legítima de la Tierra LLana de Bizkaia".

2.2. Musika

2.2.1. Nino Dentici musikariak, "Pedro M^a de Unanue: primer tenor vasco universal".

2.3. Euskal Kulturako Topaketak

Euskal Kulturaren "Postgraduko Aditu eta Espezializazioko Diploma"ko ikasketen osagarri gisa, ikasturtean zehar, euskal kulturaren egungo gaien inguruko hitzaldiak antolatzen dira. Ihazko ikasturteko hizlariak hauek izan ziren: Juan Ignacio Bidarte, Adrián Celaya, M^a Teresa Echenique, José Elorrieta, Javier González de Durana, Maite Ibáñez, Jon Kortazar, José Luis Larrea, Ludger Mees, José Ignacio Ruiz Olabuenaga, M^a José Torrecilla, Marta Zabala.

2.4. Pedro M^a Unanue: euskal tenoreari buruzko Erakusketa.

Bi asteko iraupenez, lehen euskal tenoretzat har daitekeen ondarruaren Erakusketa antolatu zen.

E. ARGITALPENAK

Bizkaieraren lekua gaur, Deustuko Unibertsitatea, Euskal Ikaskuntzen Instituta, 1992.

Bonaparte Ondareko eskuizkribuak: Bizkaiera, Deustuko Unibertsitatea, Euskal Ikaskuntzen Instituta, 1992 (3 ale).

Enseiukarrean Aldizkaria, Euskal Hizkuntza eta Literaturari buruzko aldizkaria.

Legislación Foral del Señorío de Bizkaia 1528-1877. Registro de los actos legislativos dispuestos por las Juntas del Señorío, sus Regimientos y Diputaciones Generales, Dtores. M^a A. Larrea, Rafael Mieza. Diputación Foral de Bizkaia, Universidad de Deusto, Bilbo, 1992.

Jurisprudencia Civil Foral. Edición e Indices. Gontzal Aizpuruak prestatua, Bizkaiko Foru Aldundia, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1992, (2 ale).

Liburutegia

Ikasle eta ikertzaile guztientzat, sarrera zuzena duen liburutegia eskeintzen da eta Euskal Herriari buruzko bibliografia zabalago biltzen du arlo guzietan: hizkuntzalaritza, historia, ekonomia, politika, zuzenbidea, soziologia eta beste; 26.000 inguru liburu ditu, aldizkariak eta hagitx interesgarria gertatzen den dokumentazioa ere bai.

2.2. HE.Z./I.C.E.

Hezkuntzaren Zientzien Instituta, beste eginkizunen artean, oinarritzko mailako eta batxilergoko irakasleen eta zuzendarien formazioz eta erreziklatzeaz arduratzen da. Helburu honen arabera, hainbat ikasketa eta mintegi antolatzen du. Aspergarria gertatuko litzateke azken urteotan eman diren denak aipatzea, asko bait dira, Horregatik, ikasturte honetan ematen direnak baino ez dira azalduko.

1. "Ikastetxeko Zuzendaritzan Adituen Programa", "Haur eta oinarritzko hezkuntzaren kontsultore eta zuzentzaile Adituen Ikasturtea" ("Curso de Experto: Consultor-Orientador en la educación infantil y primaria") aipagarriak lirateke, bertan Euskal Herriarekin eta, batez ere, Euskal Herriko Autonomiarekin lotzen diren berarizko gaiak azaltzen bait dira. Bestalde, Batxilergo mailan, historiari dagokionez, "Espainiako eta Euskal Herriko Egungo Historia (XIX eta XX, mendeak)" ere eratzten da.

2.3. Europear Ikaskuntzen Instituta / Instituto de Estudios Europeos

Institutu honek "Komunitate Europearraren" XIV. Postgraduko Ikasturtea ematen du. Ikasketa hauetan, euskal gaiekin lotzen diren gaiak honako hauek dira:

1. Ekonomiako espezialitatean, "Política regional en los países comunitarios e impuesto regional en los países comunitarios e impuesto regional de la aplicación del la PRC en el Estado Español y CAPV. Armonización fiscal. Política agrícola comunitaria. Las industrias agrarias españolas y de la CAPV ante el desarrollo comunitaria" azaltzen da.

2. Polita Industrialean, "Reconversión industrial: su impacto en la Comunidad y en la CAPV. Tejido industrial vasco y Comunidad Económica Europea" bereziki aztertzen da.

2.4. "Ignacio de Loyola" Ikerketa Instituta

Donostian du bere egoitza. Interdisziplinarra da eta hartzen dituen arloen artean, honako hauek dira Euskal Herriko kulturarekin lotzen direnak:

Ž Historia: Ignazio Loiolakoa eta Josu Lagunen historia.

Ž Hizkuntza eta literatura.

Ž Artea eta Ikonografia.

Ikerketarako eratu den Institutu honek lan tresna bezala Loiolan dagoen Josu Lagunen LIBURUTEGIA du. Bertan dagoen "Euskal Liburutegia" aipagarria da; 10.000 liburu ditu. Horietako batzuk balore handikoak dira gelditzen den ale bakarrak direlako. Horrez gain, Gipuzkoako Batzar Nagusien bilduma original bakarra ere bertan arkitzen da. Aldizkari bereziak ere baditu, Artxibategian hainbat eskuizkribu ere arkitzen dira: Laramendi, Cardaveraz eta abarrenak.

Bere ekintzen artean, nabarmentzekoak dira:

Argitalpenak

El pueblo vasco en la época de Iñigo de Loyola (1491-1521), Actas del Simposio celebrado en San Sebastián, 1990eko Urrian.

Kongresoak

"El lenguaje de Ignacio de Loyola", 1994ko Apirilean.

2.5. Drogomenpekotasunen Instituta

Institutu honek bi agiri berezi ematen ditu:

1. Drogomenpetasunean Masterra eta Drogomenpetasunean Aditu Programa. Bietan, beste helburuen artean, biek Euskal Herriko drogen inguruan lanean diharduten profesionalak, prebentzioan, hezketa sanitarioan, terapeutikan, errehabilitazioan, errekurtsoen antolaketa eta planifikazioan laguntzea bilatzen dute, beti ere arlo honetan dagoen legeriaren barruan. Helburu zehatzetan, aldiz, masterraren kasuan, ikasleak ekintza praktikoetan trebatzea bilatzen da, Euskal Herriko dauden etxe garrantzitsuetan praktikak eginez, toxikomaniaren inguruan gertatzen diren arlo nagusietan, prebentzioan, tratamenduan edo erreintseztzioan.

Ikerketa mailan ere nabarmentzekoak dira programa hauek:

Ž Komunikabideetan drogen publizitatea.

Ž Drogomenpekotasunaren aurrean, euskal gizartearen pentsakera.

Ž Evaluación del Plan Trienal de la Secretaría General de Drogodependencias del Gobierno Vasco: Programas de los Resultados.

Ž Estudios para la optimización de la aplicación del capítulo IV de la Ley de Drogodependencias del Gobierno Vasco.

2.6. Aisiazko Ikaskuntzen Instituta

Institutu honek Euskal Herrirako espezialistak gertatzen ditu aisialdiko ekintzetarako. Ikasketek teoria orokorrean oinarritu arren, alderdi praktikoa guztia hemengo gizarteari txertatua eramaten da.

Argitalpena

Leisure and New Citizenship. Aisia eta Hiritartasuna, Actas-VIII Congreso E.L.R.A., Bilbao, 1992/6/9-14, Bilbao, 1993.

2.7. Deiker

DEIKER institutuak ikerlanak bultzatzea du helburu, bai oinarritako ikerketak, bai aplikatuak, Unibertsitateko fakultate, institutu eta eskoletan egiten diren ikasketei dagozkien arlo guztietan.

Sustatzaile eta koordinatzaile den aldetik, Institutu honek Unibertsitateak dauzkan giza baliabide eta bitarteko material guztiak ditu eskura, haien erabilpenak irakas-jarduna eragotzen ez duen estatutuetan ezarritako helburuak. Hori dela eta, fakultateetan, Informativa Fakultatean bereziki, eta liburutegietan diren informativa eta dokumentu baliabideak eskuragarri ditu Institutu honek, hala Bilboko kanpusean nola Donostiakoan.

Ahalmen handiena, berriz, giza baliabideetan datza. Hor parte hartzen dute irakaskuntzan eta ikerlanetan diharduten irakasleek, ekonomia, estatistika, soziologia, geografia eta kartografia esparruak jorratuz, baita bekadun gisa hirugarren zikloan ari diren lizentziatuak ere, beren dotore-tesiak arloetan garatu asmoz.

Era guztietako baliabideoi esker, garrantzi handiko lanak burutzeko aukera izan du zenbait erakunderen eskariz eta enpresekin elkarlanean.

Luzeegia gertatuko litzatekeenez lan horien zerrenda zehatza azaltzea, kopuruak baizik ez dira emango:

Arlo sozio-kulturala: 20 lan.

Arlo urbanistikoa: 4 lan.

Arlo historiko-artistikoa, arkeologikoa eta etnografikoa: 5 lan.

Arlo geografiko-turistikoa: 9 lan.

Arlo informatikoa: lan bat.

Arlo ekonomiko-empresariala: 5 lan.

Arlo juridikoa: lan bat.

Hizkuntzalaritzako arloa: lan bat.

Arlo psikopedagogikoa: 2 lan.

3. ESKOLAK

3.1. Escuela Universitaria de Trabajo Social

1992-93 ikasturtean martxan jarri zen eskola berri honetan ematen diren ikasgaietan, "Estructura social" deritzanean, Euskal Herriko emaitzak Espainiakoekin aztertu eta erkatzen dira. "Servicios sociales" gaian, Euskal Herriko erakunde nahiz pribatu nahiz publikoak aztertzen dira. Azkenik, praktiken arloan, Euskal Herriko erakundeetan kokatzen dira, bai Zerbitzu Sozialetakoak bai Kriminologiari buruzkoak.

Azkenik, zera esan beharko litzateke. Deustuko Unibertsitateak azpiegitura eta hornidura bikainak dituela: Auditoriuma, Paraninfoa, Hitzaldi Aretoa, Ikusentzunezkoen gela etab. Azpi-egitura honek laguntzen dio Unibertsitateari kultur iharduera ugari eta etengabea izaten. Ezaguna denez, Deustu sarri izan da mintegi, ihardunaldi eta kongresuetarako topaleku, gehienetan, edo denetan, Euskal Herria tartean sartzen delarik. Honen lekuko "Forum-Deusto" izango litzateke, Euskal Herriko egoera politikoa, sozio-ekonomikoa eta kulturala, egun dauden espezialista bikainenek aztertu dutelarik, eta, aldiberean, entzuteko eta eztabaidarako topaleku ezin hobea eskeiniz.

Bestalde, Nazioarteko harremanak ere ez dira baztertzekoak. Amerikar ikastetxeekin harremanak zabaltzeko jesterioak egiten dagoen une honetan, Europearrekin ere oso zabaltzekoak ditu. Deustuko Unibertsitateak 15 herrialdeetako 76 unibertsitateekin harremanak ditu ERASMUS, LINGUA, COMET, TEMPUS programen bitartez. Milaka ikasle etortzen dira, harreman horiek direla bide, Bilbo eta Donostira, Euskal Herriko kultura, egoera ezagutu eta hizkuntza bera ere ikasteko aukera eta bidea izaten dutelarik.